

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ILEA MOZTEA (zeharkakoa)	Iraupena	90
		Berariazkoa	
Kodea	UF0534		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulu	Ile-mozketa eta teknika osagarriak (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulu osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Bizarraren eta bibotearen zainketa (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0351_2 ILEA MOZTEA, ETA BIZARRA ETA BIBOTEA TXUKUNTZEA ETA MOZTEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, ilea mozteari dagokionez.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bezeroa eta profesionala babesteko, ilea mozteko tekniketara egokitutako babes-neurriak hartzea.

EI1.1 Bezeroa posizio anatomiko egokian jartzea eta janzkeria egokiarekin babestea.

EI1.2 Teknika gauzatzeko posizio anatomiko egokian jartzea.

EI1.3 Ilea mozteko teknikak aplikatzean gerta daitekeen istripu-motarik ohikoenak azaltzea, haien eragiten dituzten kausekin eta hartu beharreko neurri prebentiboekin erlazionatzeko.

A2: Bezeroaren ilearen eta buru-larruazalaren ezaugarriak eta fisonomia aztertzea, eta haien bezeroaren eskaerekin eta moda-estiloekin erlazionatzea, ile-mozketaren forma edo mota egokienak aukeratzeko.

EI2.1 Ile-motak formaren, lodieraren, kantitatearen, egoeraren eta emultsio epikutaneo motaren arabera sailkatzea.

EI2.2 Mozketan eragina duten ezaugarri pertsonalak deskribatzea, eta grafiko batean markatzea egoera.

EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, ilearen luzerak eta bolumenak ezaugarri fisiko hauekin duten erlazioa deskribatzea:

- Buruaren tamaina eta forma.
- Aurpegiaaren morfologia.
- Lepoaren luzera.
- Garaiera.

EI2.4 Deskribatzea ile-mozketaren moda-joerak eta haien obalo- eta profil-mota desberdinatuen aplikazioa.

EI2.5 Bezeroei estiloak aukeratzeko aholkuak ematea haien ezaugarriak, behar pertsonalak, laneko beharrak, behar sozialak eta itxura osoa kontuan hartuta.

EI2.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, ilearen bolumenak eta luzera hauen arabera aukeratzea:

- Obalo-mota.
- Kopeta-mota.
- Profil-mota.

EI2.7 Bezeroaren ezaugarriei, eskaerei eta beharrei buruzko informazioa jasotzeko fitxa teknikoak egitea.

EI2.8 Oinarritzko mozketa-estiloen eta -moten ezaugarriak definitzea. Honela izendatzen dira horiek: beren erorkera naturalean, trinkoa; eta beren erorkera naturaletik kanpo, berriz, degradatua, geruzatan mailakatua, geruzatan uniformea, etab. Horiek erabiliz, bakarrik edo elkarren artean kombinatuta, hainbat mozketa-estilo egin daitezke.

A3: Ile-luzera aldatzeko erremintak, osagarriak, tresnak eta kosmetikoak aukeratzeko irizpideak aztertzea, estilo desberdinen eta bezeroaren beharren eta eskaeren arabera.

EI3.1 Ilea mozteko prozesuan behar diren tresnak eta erremintak zerrendatzea.

EI3.2 Ilea mozteko prozesua eta faseak azaltzea, eta haietako bakoitzean erabiltzen diren produktu, baliabide eta tresnekin eta ilearen luzeran, bolumenean eta testuran egindako aldaketezin erlazionatzea.

EI3.3 Ilea mozteko kasu praktiko batean, hauen aukeratzea:

- Ile-mozketa prestatzeko kosmetikoak.
- Erremintak.
- Erreminta bakoitzarekin egin beharreko teknikak.

A4: Ilea mozteko prozesuaren eta haren faseen protokoloa egokitzea, eta fase bakoitzean behar diren baliabide teknikoak, materialak eta produktuak identifikatzea.

EI4.1 Aldatu ezin diren eta ile-mozketan eragina duten ezaugarri pertsonalak azaltzea.

EI4.2 Ile-mozketa bat pertsona bati egokitzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala definituta edukirik, hauek aukeratzea:

- Sekzioak.
- Lerroak.
- Luzeren proiekzio espazialaren eskema.
- Gida ile-sortaren luzera-patroia.
- Gida ile-sorta mota eta gida ile-sortaren edo ile-sorten norabidea.
- Ile-sorten proiekzio-angelua.
- Mozketaren ordena.

EI4.3 Mozketen oinarritzko forma edo mozketa-motak deskribatzea: trinkoa, geruza degradatutan, geruza handitutan eta geruza uniformetan. Mozketa-mota horiek erabiliz, bakarka edo elkarren artean konbinatuta, ilea mozteko hainbat estilo egin daitezke.

EI4.4 Mozketa-faseak eta horietako bakoitzean erabilitzen diren erremintak, materialak eta produktuak jasoko dituzten fitxak egitea.

EI4.5 Moztu beharreko ilea prestatzeko erabilitzen diren kosmetikoak aukeratzeko irizpideak azaltzea.

EI4.6 Ilea mozteko erabilitzen diren materialak, tresnak eta erremintak desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aplikatzea.

A5: Ilea mozteko teknikak eta estiloak gauzatzea, bezeroaren ezaugarrien eta eskaeren arabera eta segurtasun-eta higiene-arauak errespetatuz.

EI5.1 Bezeroa jarrera anatomiko egokian kokatzea, eta segurtasun- eta higiene-kondizioak betez prestatzea, babesteko.

EI5.2 Mozketa eta haren estrategia planifikatzea, ilearen luzeren proiekzio espazialaren irudikapen grafikoa eginez eta behar diren elementu teknikoak definituz.

EI5.3 Aplikatu daitezkeen teknikak deskribatzea, eta ilea mozteko erabilitzen diren erremintekin erlazionatzea.

EI5.4 Oinarritzko formak dituzten mozketak egitea: trinkoa edo bere erorkera naturalean, degradatua, handitutako geruzatan eta geruza berdin-dutan.

EI5.5 Ile-luzera aldatu aurretiko teknikak egiteko kasu praktikoetan:

- Aurrez desinfektatuta, garbituta eta esterilizatuta dauden mozketa-erremintak eta material osagarria aukeratzea eta prestatzea.
- Bezeroa prestatzea teknika horretarako egokiak diren babes-neurriekin.
- Bezeroari naturalean eta ispiluaren aurrean eta posizio guztiaren erreparatzea.
- Bezeroaren ezaugarrietara egokitutako mozketa-estiloa aukeratzea.
- Ilea prestatzeko kosmetikoak espezifikoak fabrikatzaileak ezarritako arauen arabera ematea.
- Ilea prestatza eta «zatiketak» egitea, lortu nahi den mozketa-estiloaren eta erabiliko den teknikaren arabera.

EI5.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, modelo batean hauek egitea:

- Estiloa aukeratzea.
- Mozketa-formaren estiloa edo ilearen luzeraren irudikapen grafikoa.
- Proiekzio-angelua aukeratzea.
- Gida ile-sorta mota eta gida ile-sortaren edo ile-sorten norabidea aukeratzea.
- Erabiliko diren teknikak aukeratzea.
- Mozketa egitea.

EI5.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, eskura dauden erreminta guztiak erabiliz, mozketa-teknika hauek aplikatzea: punteatzea, mozketa zuzena, kurbatua, desberdina, bakandua, lumatua, degradatua, lerratua, desfilatua, geruzatan, puntak barrurantz, puntak kanporantz, zuzenak eta desberdinak.

EI5.8 Ile-luzera aldatzeko teknikak egiteko kasu praktikoetan:

- Mozketarako oinarri izango den ile-luzeraren eskema zehaztea.
- Gida ile-sortaren egoera eta luzera aukeratzea, lortu nahi den estiloaren eta luzeraren arabera.
- Trebetasunez maneiatzera mozketa-erremintak eta erreminta osagarriak teknikak aplikatzean.
- Ilea mozteko teknikak eta akabera ematekoak integratzea eta modu sekuentzialean egitea, nahi den emaitza lortzeko.
- Behin gauzatzeko bukatutakoan, moztutako ilearen hondarrak tresna eta produktu egokiekin ezabatzea.
- Behin ilea moztutakoan, azaltzea nola lehortu behar den nahi den emaitza lortzeko.
- Ilea mozteko baliabide teknikoak, behar diren produktuak eta produktu osagarriak erabiltzeko kondizio higieniko-sanitarioetan mantentzea.

EI5.9 Ilea mozteko teknikak aplikatzean gerta daitezkeen istripurik ohikoenak azaltzea, eta haien eragiten dituzten kausekin eta hartu beharreko neurri prebentiboekin erlazionatzea.

A6: Ilea mozteko estilo-aldaketan prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzea, eta emaitzak aurreikuspenetara egokitzeko egin beharreko aldaketak proposatzea.

EI6.1 Ilearen luzera eta estiloa aldatzearen azken emaitza aztertzea, eta zerbitzuaren kalitatea zehazteko prozesuko zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea.

EI6.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari eta profesionalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoekin galdetegiak egitea.

EI6.3 Ilea mozteko zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak identifikatzea.

EI6.4 Ilea mozteko zerbitzua ebaluatzen kasu praktiko batean:

- Prozesuko kalitate-adierazleak identifikatzea.

- Aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak identifikatzea, eta desbideratzeen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak arrazoitzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliahaien gertatutako fasearekin lotzea.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzen neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI6.5 Prozesuko gorabeherak bezeroaren fitxan jasotzea, hurrengo zerbitzuan kontuan izateko.

Edukiak

1. Ilea mozteko, aurpegiaren morfologia eta aurpegierak aztertzea.

- Aurpegiaren morfologia.
- Proporzioko eta geometria.
- Aurpegiko beste elementu batzuk: kopeta, kokotsa eta lepoa.
- Profila aztertzea.
- Gorputzeko ezaugarriak.
- Gorputzkeramotak.
- Larruzal iletzu maskulinoaren egitura, fisiologia eta patologia.
- Alterazio estetikoak.

2 Larruzal-organoaren kontzeptu anatomiko eta fisiologikoak eta mozketarako interesgarriak diren haren eranskinak.

- Ezaugarri fisiokoak: Buru-larruzal motak. Ile-motak. Ilearen hazkuntza.
- Ile-lerroaren ezaugarriak eta ilearen banaketa eta dentsitatea. Kalparrak, inklinazioa eta bestelakoak.
- Mozketan eragina duten ilearen alterazioak.

3 Ilearen prestaketa eta ile-mozketan eragina duten alderdi pertsonalak.

- Ilearen antolamendua.
- Hezetasun-maila.
- Kosmetiko espezifikoak.
- Ilearen bereizketak.
- Laneko eremuak edo sekzioak: goikoa, albokoak, ondorengoa.
- Partizioak.
- Zatiketa-lerroak.
- Ile-mota.
- Erorkera naturala.
- banaketa;
- Dentsitatea.
- Jaiotze-angelua.
- Jaiotze-lerroa edo ile-lerroa: kopeta, albokoak eta garondoa.
- Hazkuntza-norabidea: kalparrak.

4 Ilea mozteko erremintak eta kosmetika.

- Ilea mozteko erreminta espezifikoak:
 - Guraizeak eta orrazia: aukeratzea eta maneiatzeari.
 - Labana: xafla irekikoak edo babestua.
 - Ilea mozteko makina.
 - Xafla.
- Tresnak: langarreztagailuak, ontziak, eskuilak, ilea bereizteko pintzak, arroparako eta larruzalerako eskuilak, beste batzuk.
- Erreminten garbiketa, desinfekzioa, esterilizazioa, mantentze-lanak eta kontuan izan beharrekoak.
- Kosmetiko espezifikoak.
- Moztu ondorengorako produktu kosmetikoak, hemostatikoak, antisепtikoak, desinfektatzaileak.

5 Ilea mozteko teknikak aplikatzea.

- Ilea mozteko protokoloak egokitzea.
- Mozteko, sekziotan zatitzeari.
- Lerroak eta norabidea: mozketarena, inguruarena; horizontalak, bertikalak, zeiharrak edo diagonalak.
- Gida ile-sortaren luzeraren neurri-patroia.
- Gida ile-sorta: motak eta norabideak.
- Moztu beharreko ile-sortaren inklinazio-angelua edo proiekzioa.
- Antolamendua.
- Pisua.
- Proporziokoak.
- Oinarritzko ile-mozketa formen edo moten ezaugarriak:
 - Erorkera naturalean edo mozketa trinkoak.

- Erorkera naturaletik kanpo: mozketa degradatuak, geruzatan mailakatua, geruzatan berdindua, forma desberdinak konbinatuta.
- Mozketa-formen eta -moten azterketa.
- Ilearen luzeren proiekzio espazialen irudikapen grafikoa, mozketa-mota desberdinan.
- Ile-mozketa motak eta haien gauzatzea:
 - Oinarrizko ile-mozketa guraizeekin.
 - Gaur egungo ile-mozketa laburra guraizeekin.
 - Geruzatan moztea guraizeekin.
 - Gizonetako oinarrizko ile-mozketa guraizeekin.
 - Gaur egungo ile-mozketak husteko guraizeekin.
 - Gaur egungo ile-mozketak geruzatan eta desfilatuak labanarekin eta husteko guraizeekin.
 - Gizonetako ile-mozketa guraizeekin eta ilea mozteko makinarekin.
 - Gizonetako gaur egungo ile-mozketak guraizeekin.
 - beste batzuk.
- Ile-motaren eta bezeroaren ezaugarrien eta beharren araberako teknikak.
- Diseinuko elementuak.
- Teknika koordinatuak: mozketa/kolorea, aurremozketa/forma/kolorea, mozketa/forma/kolorea.
- Estilo desberdinak akaberaren bitartez.
- Ile-mozketa estilo desberdinek aurpegi-mota desberdinan dituzten efektuak aurpegiaren morfologiarengarabera.
- Estiloa hautatzea. Bezeroarekiko komunikazioa.
- Ilea mozteko prozesuen protokoloak egokitzea.
- Norbera babesteko profesionalen neurriak:
 - Higiena. Janzkeria.
 - Lanerako gomendatutako jarrera-higiena.
- Ilea mozteko prozesuetako bezeroa babesteko neurriak:
 - Janzkeria.
 - Ilea mozteko prozesuetarako gomendatutako jarrera-higiena.
- Lehen laguntza ilea mozteko prozesuetara aplikatuta.

6 Ilea mozteko prozesuetako kalitate-kontrola.

- Ilea mozteko lan teknikoen kalitatea zehazten duten parametroak.
- Ilea mozteko prozesuetan lortutako emaitzetan lortu nahi ziren emaitzekiko izandako desbideratzeak zuzentzeko neurriak.
- Ilea mozteko prozesuak ebaluatzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko metodoak.
- Ilea mozteko prozesuetako kexak ebazteko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudienaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa tekniko-artistikoa